

## Materialen "bizi iraupena" zelan luzatu


2012/03/20

Material guztiek iraupen mugatua dute, eta, egunero mantentze-lanak eginez luzaroago iraunaraztea lortu arren, karga mekaniko eta/teknikoen ondorioz, une jakin batean bertan behera utzi behar izaten dira. Esparru horretako ikerketek, medikuntzakoek bezala, une hori atzeratzea dute helburu. Medikuntzan gizakien bizi-itxaropena luzatzen saiatzen dira, eta hizpide dugun esparruan, berriz, iraugitze-data geroratzen eta materialen iraungarritasuna areagotzen ahalegintzen dira. Lorpen horiek, izan ere, hiritarren segurtasuna eta bizi-kalitatea handitzeaz gain, enpresen eta, beraz, ekonomiaren kostuak murrizten laguntzen dute.

Jardunaldia egin ondoren, martxoaren 21ean, 22an eta 23an, materialen nekearen, hausturen eta iraunkortasunaren esparruko 150 ikertzaile eta profesional Bilbon elkartuko dira, Espainiako Haustura Taldearen XXIX. topaketan. Mondragon Unibertsitateak eta Espainiako Haustura Taldeak antolatu duten ekimen horretan, hainbat arlotako ehun txosten inguru aurkeztuko dira: nanoteknologiakoak, automozioakoak, ingeniari-tza zibilekoak, aeronautikakoak eta bioteknologiakoak, adibidez. Azken aurrerapenak ezagutzera ematea eta ikertzaileen artean hedatzea da helburua.

Material edo egitura mota horiek, gizakiok bezala, hausturak eta nekea jasaten dituzte, eta ikerketa guztiak iraugarritasuna handitzen saiatzen dira, emaitzak era guztietako arlo ugarritan baitira aplikagarriak. Horrek guztiak uste baino askoz ere eragin handiagoa du gure eguneroko bizitzan ere.

Areonautikan, adibidez, motorrek gehiago irauteko moduak ari dira ikertzen, oso tenperatura handietan aritzen baitira. Ibilgailuen arloko ikerketek motorren osagaien iraugarritasuna handitzea eta kontsumoa murriztea dituzte helburu. Horrela, piezak tenperatura handietan egiten dituzten enpresek erremintak iraunarazteko eta kostuak murrizteko aukera izango dute. Energia sortzeko zentraletan ere, produkzioa handitzeaz gain, funtzionamendu-segurtasuna areagotu egingo litzateke.



Materialen jardunaldia